

...eta kitto!

695 zkia. 2009-X-23

ASTEKARIA

Indalezio Ojanguren saria Eibarrera




www.jetaime.es

*Etarri orain eta lortu egizu
%10 deskontuan*

ZERφ

Estaziño, 12




DEITU. 943 20 67 76
943 20 09 18

Argazkidendak • Argiztapenak • Ariztegiak • Arriindegiak •
• Aseguruak • Aseoriak • Autokarrikak • Auzo-argiztegiak • Barneak • Barne-dendak •
• Bidaiak Bideo erreportaiak • Bideo klubak • Bixitegiak • Bulego fresneria
• Dekorazioa • Dentistak • Elektrizitatea • Elektrodomestikoak • Elkarteak •
Eraikuntza • Errehabilitazioa • Erreformak • Errotulazioa • Estankoak • Este-
tika • Farmaziak • Ferreteriak • Fotokopiadendak • Fruitategiak • Funera-
riak • Garagardotegiak • Garraioak • Gasolindegia • Gozokiak • Gozo-
tegiak • Grafikagintza • Harategiak • Haurzaindegia • Euskaltegiak •
Ikastetxeak • Hotelak • Igeltseroak • Ileapaindegia • Industria • Informa-
tika • Inmobiliariak • Inprenta • Iturginak • Janaridendak • Jantzidendak •
Jatetxeak • Jostailudendak • Kafetegiak • Kalefakzioa • Kirolendak • Kol-
txoidendak • Komunikabideak • Komunitateak • Konpresoreak • Konstruk-
zioa • Kristaldegia • Leihoak • Lentzeria • Libu-ludendak • Loradendak •
Makina saltzaileak • Margoak • Markak • Masajeak • Medikuntza • Ana-
lisi klinikoak • Dermatologia • Dietetika eta nutrizioa • Errekonozimenduak
• Fisioterapia • Logopediak • Oftalmologia • Otorrinoak • Podologia •
Psikiatria • Psikologia • Mertzerial-
giak • Optika • Ortopedia • Pertsio-
• Prentsa eta aldizkariak • Publizitateak •
Tabernak • Tapizeriak • Tatuajeak eta
terapiak • Toxikologia • Zeramika •

Zure aukera bakarra!

2010eko
GIDA
prestatzen
dihardugu...





ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak
HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Virginia Arakistain

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

EZBADA (BE) ZE.- Baino, baizik. "Ez bakarrik zan zatarra, ezbada ze gaiztua be bai".

EZEREZDAKO.- Pobrea, behartsua, ezer ez duena. "Zorionekuak ezerezdakuok, Jaungoikuan erregetasuneko bizitza zuena dalako".

EZERTARA / EZERTARA BEZ.- Inola ere ez. "Ezertara bez genduke laga bihar galtzen geure hizketia".

ESKUTITZAK

ATZERRITAR ADINGABEAK EIBARRERA

Atzerritar adingabeak etorriko omen dira Eibarre-ra. Eta, dirudienez, ezetza, beldurra besterik ez da azaltzen gure arduradunen eta herritarren artean. Hori, nire iritziz, ez da gizatiarra, ez da eibartarra.

Gaszte hauek, lehenbizi, gizakiak dira. Eta, gizaki direnez, maitagarriak eta errespetagarriak. Denen artean okerrena ere gizakia da, izaki maitagarria da, bere akats guztien gainetik.

Hauek ez dute, nonbait, bizipen egokirik izan; ez euron etxean, ez kalean, ez eskolan (aukerarik izan bazuten), ez beren herrian, ez atzerrian. Gizakia maitagarri denez, gizaki errukarria are maitagarriago.

Beraz, Eibarrera etortzen badira (ni ez naiz inor erabaki horretan jarduteko), nik uste eibartarrok gazte hauei zelan lagundu pentsatzen saiatu behar ga-

rela, baikor. Eibar 'ciudad ejemplar' izan zen. 'Giza eredu hiria' titulu ederra eskuratuko genuke, gazte-txo errukarri hauen hiri maitale, abegitsu, laguntzaile gisa jokatu.

Lehenbizi *gizakiratu* egin behar dira. Hau da, beren gogoan benetan gizatiar diren jardunetara ohitu, egokitu. Eta horretarako, lehenbizi, Eibarren gizaki maitagarritzat onartuak direla sentitu eta bizi behar-ko lukete. *Gizakiratu* ahala baita ere *gizarteratuz* joango liriteke. Aldiz, uxagarriak direla sentiaraziz, inola ez.

Eibarko hiri arduradun, familia, eskola, gazte, denon eginkizuna izan beharko luke, banaka eta taldeka. Ahal bada, lagunduz. Eta gutxienez, errukia sentituz eta onarpena eskainiz.

JENARO GARATE

BASERRIA DA ETORKIZUNA

Zapatuan basarrixaren aldeko manifestaziñua egingo dogu Eibarren. Hamen Eibarren, herri moderno honetan, nun eskillara mekanikuak zerurañño ailegatzen diran, nun herrixa salgai dagan. Eibar Centro Comercial Abierto, El Corte Inglés, Eroski eta Lidl ugari, baiña basarritarrok ez dakagu gure produktuak saltzeko aukera eta erraztasun haundirik. Errebal Center-en akaso... zelako higuiña emoten desten inglezeko berbek!

Tekniker Arrateballe hondatzen dabil, bere izena autopistatik ikustiaren atxakixarekin. Mandiola baillariari, atzian ez geratziarren, bariante eder bat egingo detse. Eta, martxa honetan, Pagei aldiari egiten dabizen eskonbreria Ixuaraiño ailegauko da. Baiña zeñi edarto zainduta daren herriko rotonda eta lora-tegixak. Eta mendixa, sasi eta otiaz jantzita.

Hori da gure agintarixen filosofixia: zaharkittua geratu dana bota eta barrixa egin. Belaunaldi barrixek ez dabe Eibarko historiaren arrastorik eukiko. Tallarra gaztetxiak be traba egitten dau eta aurki botako dabe, edo saiatuko dira botatzen. Eutsi!!

Eta nik basarritar izan nahi dot, nahiz eta ez dan erraza korrontiarren kontra bidia zabaltzia. Nekazari-tzaren egoeria beltza da, baiña basarrixak da etorkizuna. Guztion artian lortuko dogu: basarritar eta kaletarrak batu eta indarra egin, basarrixaren errelebuaz ziurtatu, salmenta zuzena bultzatu, basarritarraren-dako soldatia eta bizimodu duiña lortu...

Urriaren 23tik 25era, Azpeititik Durangora, basarritar gaztien martxia. Animau eta parte hartu! Basarritar barik, Euskal Herririk be ez dalako izango!

JOSU GIL



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

 kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

**ALDAKETAK ASTEBURUKO
TRENETAN**

Ardantza inguruan trenbidea bikoizteko lanak direla eta, asteburuan ez da tren ibiliko Ermua eta Ardantza artean. Hala ere, Eusko Trenak autobus zerbitzua eskainiko du tarte horretan, trenbidea moztuta dagoen bitartean.

**FERNANDEZ LARA
HIL EGIN DA**

Astehenean hil zen Jose Fernández Lara zinegotzi-ohia, luzaroan gaixorik egon ondoren. Alderdi sozialistako kidea, Hirigintza arloan jardun zuen Eibarko Udalean eta, besteak beste, Azitaingo industrialdea egiteko prozesuaren hasieran hartu zuen parte. Euskal Sozialistak taldeko kidea izan zen 80ko hamarkadaren erdialdera eta Lurralde Antolamendurako Batzordean era jardun zuen. Azken urteotan Asturiasen, Villaviciosan bizi zen.

OMENALDIA

Ernesto Alberdi euskal preso politiko ohiari omenaldia egingo zaio gaur, barixakua, Eibarko Bizikleta Plazan 19.00etan. Ondoren bertso-poteoa eta afaria egingo dira.

**Bihar ailegatuko da
baserritar gazteen martxa**

GAUR GOIZEAN AZPEITIATIK IRTEN DEN BASERRITAR GAZTEEN MARTXA EIBARRERA AILEGATUKO DA BIHAR eguerdian, Azkoitia eta Elgoibar zeharkatu ondoren. Akuilu taldeak antolatuta, gaur, bihar eta etzi hainbat herri zeharkatuko ditu martxak eta egiten duen geldiene bakoitzean ekitaldi bereziren bat garatuko dute. Eibarren, zapatuan 12.00etatik aurrera 'Baserría da etorkizuna' izenburuko manifestazioa abiatuko da Untzagatik. Ondoren, martxak bere ibilbideari jarraituko dio, Bizkaia aldera joanda: 16.30etan Ermuan kalejira egingo dute eta 19.30etan, berriz, Mallabian pelikula emanaldia eta tertulia egitea aurreikusten dute. Baserritar gazteen martxa



Baserritar Gazteen martxa Durangon amaituko da etzi.

domekan amaituko da Durangon: 10.00etan baserritar gazteen azoka egingo dute eta 14.00etan herri bazkaria, Andra Mari elizako arkupeetan.

Atxiloketen inguruko protestak

LAB SINDIKATUAK DEITUTA, BARIXAKU EGUERDIAN ESKUALDE MAILAKO KONZENTRAZIOA EGIN ZEN UNTZAGAN, Donostian egun batzuk aurretik egindako atxiloketak salatzeke. Arratsaldean,

berriz, manifestazioak zeharkatu zuen herria, Untzagatik abiatuta.

Martitzenean, sindikatuak Donostian duen egoitzan burututako polizia-operazioan, Batasuna berreraikitzen ahalengintzen zihardutela argudiatuta




hamar lagun atxilotu zituzten eta horietatik bost (Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Sonia Jacinto, Arkaitz Rodriguez eta Miren Zabaleta) kartzelaratzeko agindua eman zuen barixakuan Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak. Rufi Etxeberria eta Ainara Oiz aske laga ditu, badaezpadako neurririk ezarri gabe eta beste hiruei (Mañel Serra, Amaia Esnal eta Txelui Morenori) hamar mila euroko bermea ezarri die, aske geratu ahal izateko. Dena dela, bost eguneko epea eman diete bermea ordaintzeko eta barixaku iluntzean bertan aske laga zituzten.

Maridaje jardunaldiak Krabelinen

AZKEN URTEOTAKO MARTXARI JARRAITUTA, ARRATEKO KRABELIN JATETXEAK EHIZA ETA ARDOA EZKONTZEKO jardunaldiak antolatu ditu seigarrenez. Azaroaren 6an hasi eta hilabete horretako barixaku gau guztietan afari bereziak egingo dituzte, gonbidatutako sukaldari eta enolo-

goekin. Erretserba egin beharko dute joan nahi dutenek. Zuzeneko erretserbak egiteko epea eguaztenean zabaldu zuten eta hilaren 25etik aurrera, berriz, telefono bitartez erretserba egiteko aukera izango da (943202727 telefono zenbakian). Afariak 56 euro balio du, BEZ eta autobus zerbitzua barne.

**ELENA LARRARTE ZURUTUZA**

(2009ko urriaren 15ean hil zen, 74 urterekin)

"Zerutik ere, zure Floren maitearekin, guztioi laguntza eta babesa ematen jarraituko duzu"

Senideen izenean, eskerrik asko hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.

Pegoran ere euskaraz

PEGORA HERRITARREN ZERBITZURAKO BULEGORA JOATEN DIREN HERRITARRAK EUSKERAZ BERBA EGITERA ANIMATU NAHI DITUZTE, barixakuan udal ordezkariak egindako agerraldian azaldutakoaren arabera: *“Udalak ahaleginak egiten dihardu euskeraren erabilera handitzeko, bai zerbitzu-hizkuntza moduan, bai lan-hizkuntza moduan eta horretarako martxan jarrita dago iazko azaroan osoko bilkuran onartu zen Bigarren Erabilera Plana”*.

Pegora orain dela sei urte zabaldu zen, herritarrei udalarekin lotutako hainbat zerbitzu eskaintzeko eta jendeari gogo-



rarazi nahi diote bertako behargin guztiak gai direla jendeari arreta euskeraz eskaintzeko, bai zuzenean zein telefonoz. Hala ere, askori oraindik ere administrazioarekin dituen harremanetan euskera erabiltzea kosta egiten zaiola ikusita, mostradore gainean adierazga-

rri batzuk jarri dituzte, bertara doazenei euskeraz egin dezaketela gogorarazteko. Horrez gain, bertako beharginek telefono deiei erantzutean agurra eta lehen berbak euskeraz egiten dituzte, deitzen duenak hasieratik jakin dezan euskeraz jarduteko aukera baduela.



Izaro Aulestiarte

Krisia eta burbuilak

Egia esan behar badut, ...eta kitto!-rako zutabia idatzi behar dudan bakoitzean inspirazioak ihes egiten dit, bakar-bakarrik lagatzen nau. Edozein egun edo egoeratan, gutxien espero dudanean, bururutzen zait lerro batzuk idazteko aitzakiaren bat. Baina, horretarako epe zehatz bat ezartzen zaidanean, ordenagailua etsai moduan agertzen zait mahai gainean. Oraingoan erabaki bat hartu dut, baina; erabaki praktikoa, nik uste. Eguneko albisteak laburtzen dituen saio bat ikusi eta belarriak noiz tentetu zain geratzea izan da nire aukera. Zain izan nau esatariak, albigestiko azken txanpara arte, tamalez eguneko kontuetan ez baitut “nobedosoa” den ezer gutxi entzun. Baina, azken orduan bota dit, bai, perla polita: Bingo! Hara bere titularra: *“Freixenetek Gabonetako iragarkia errepikatuko du, krisia dela-eta”*. Gabonetan klasiko bihurtu zaigun iragarkia dugu Freixenetena: urteotan izar handi eta aurpegi ezagun ugari urrezko burbuilen artean aurkeztu izan diguna. Iaz igeriketa sinkronizatua egiten duten neskak egin zituen protagonista, eta krisiak dakarren “moderazioa” kontuan hartuta, spot bera aurkeztuko omen du urte amaieran. Ez nator ni erabakia baloratzen, ez baitakit zenbateko aurrekontua aurreztuko duen Freixenetek, ez eta diru hori zertara bideratuko ote duen ere. Jakin badakit, ordea, etxe askotan burbuilentzat gogo eta leku gutxi izango dela aurten. Eta, konpainia katalanak 0 kostea inbertituta bere propoganda efektua lortu duela ere badakit, medioek albiste nagusien artean plazaratu baitute, beste hamaika kontu bidean ahaztuta. Ona ala txarra, beraz, lehen urratsa egina eta, esango nuke, helburu nagusia ere lortua dutela, behinik behin.


Nagusi ezinduen familiendako ikastaroa

ADINEKO EZINDUEN FAMILIEI LAGUNTZEKO BEREZIKI PRESTATUTAKO IKASTAROA

emango dute Egogain zaharren egoitzan azaroaren 10ean eta 12an, 15.00etatik 18.00etara. Ikastaroa Etxetek laguntza produktuen foru zerbitzuak emango du, doan, eta gehienez 16 ikasle onartuko dituzte. Eskerak azaroaren 6ra arte aurkeztu daitezke, Pegoran.

Ikastaroan, besteak beste, honako gaiak landuko dituzte: Jarrerazko higie-

na eta ergonomiaren gaineko oinarriko arauak, laguntza pertsonalaren zerbitzuan; mobilizazioa eta transferentziak nola egin laguntza tresna bari (pardela aldatu, oheak egin, elikadura eta jantziak, nola egin jarrita-etzinda mugimendua eta alderantziz); nola egin mobilizazioak eta transferentziak bai maila handiko laguntza teknologikoarekin bai maila apaleko teknologiarekin; eta nola erabili zerbitzu pertsonaleko ohiko laguntza teknikoak.



Deba Bailarako odol-emaileei omenaldia

GIPUZKOAKO ODOL EMAILEEK DEBAGOIENA ETA DEBABARRENAKO ODOL EMAILEAK OMENDUKO DITU

domekan Elgetan. Urteroko moduan, odola 25 edo 50 alditan eman dutenei insignia eta diploma emango diete, errekonozimendu gisa. Omenduko dituzten lagunen artean 25 eibartar daude: Jesusa Goiogana, Mertxe Iraolagoitia, Belen Larrea, Agustin Agirre, Eusebio Laskurain, Luis Alcoba, Juan Luis Garmendia eta Juan Cruz Zabalak 40-50 alditan eman dute odola. 25 odol-emate egin dituztenak, berriz, M^a Pilar Arregi, Ander Beobide, Jose Angel Cabrero, Concepción Ziarsolo, Yolanda Gómez, Ernesto Gurrutxaga, Juan Ignacio Ibarra, Arrate Martínez, Arrate Osoro, Luis M^a Osoro, Igor Vega, Consuelo Vila, Serafina Vila, Beatriz Zabala, Igor Trebiño, Iñaki Lasa eta Mikel Azpiroz dira. Horiek eta omendutako beste guztiek meza izango dute Elgetako elizan eta, ondoren, Espaloia kafe antokian bazkalduko dute.



Aurten, Arraten ospatu beharrean, omenaldia Elgetan egingo zaie.

asteko

1.750

datua

dira batzbeste garabiak herriko kaleetan jasotzen dituen ibilgailuak urteko. Aurten honezkeroko 1.400 ibilgailu eraman ditu garabiak Matsariako depositora. Mila kilotik beherako ibilgailua bertatik jaso ahal izateko 39 euro ordaintzen dira eta hortik gorakoak (gehienak) jasotzearen ordaindu beharreko isuna 69 eurokoa da.

HERRIKO ALDERDI POLITIKOEN ETA HERRITARREN PLATAFORMEK ERREBALGO LURZORUAREN INGUURUKO etorkizunarekin kezkatuta jarraitzen dute. Eusko Alkartasunak erredakziora bidalitako oharrean dioenez, *"instituzioek zor duten gardentasunari jarraituz, merkatu plazak bete zuen lurzoruaren benetako egoera zein den herritarrei azaltzeko eskatu behar diogu Udalbatzari"*.

Bestalde, Errebal Plataformak hainbat puntu argitu nahi izan ditu: *"Lurzorua berreskuratzea lehentasun nagusia dela uste dugu. Udal arduradunak lurzoruaren besterentzeak ekarri duen arazoa konpontzeko gauza izatea espero dugu eta 2007an alkatea zen Iñaki Arriolak eta Miguel de los Toyo Hirigintza zinegotziak horren inguruko hausnarketa publiko sakoan egin beharko luketeela pen-*



tsatzen dugu". Horrez gain, merkataritza gunea irekitzearen kontra ez daudela gogora ekarri nahi izan dute, *"eta Errebal ingururako egin daitezkeen proposamenak onartzeko prest"* daudela diote eta, edozein modutan ere, *"herritarren partehartzeari bideak zabaltzea"* aldarrikatzen du.

Astindu asteleheneko plenora

Astindu Hirigintza Taldeak, berriz, astelehenean 19.30etan egingo den plenora joko du 13 galdera zehatz planteatzeko

asmoarekin, *"eta zuzenean erantzuna norbaitek jakin nahi badu bertaratzeko gonbita luzatzen diogu"*. Besteak beste hauek dira galdera batzuk: *"Errebalgo lurzoria hipotekatuta dagoenez, zenbat diru kostatuko zaigu eibartarroi hipoteka hori altxatzea?, Zergatik jasotzen du salerosketa kontratuak lurra ezingo dela Eibarko Udalaren jabetzakoa izatera itzuli? Eibar Boulevardrek bankuari eskatutako 27 milioi euroak non daude? Eta Udala prest dago herri kontsulta bat egiteko?"*.

Oin dala
hamar
urte

1999-X-22 / 290. ZKIA.



- 670 kilo liburu, kuaderno, boligrafo etabar jaso zittuan Correosek Eibarren gazteleraz berba egiten daberen herrialde kaltetuenen umiendako liburuak lortzeko helburuarekin estatu mailan egindako kanpaina berezixan.
- Udaletxeko biharrak ordura arte hamar hillabeteko atzerapena baeken be, Amenabar konstruktorekin ekan kontratua eteña erabagi eban Udalak eta beste enpresa bat billatzen hasi ziran.
- Txantxa-Zelaiko parking publikuak atiak zabaldu zittuan 149 autuendako. Bikanik eraikitako parkinga berak usiatu eban eta prezixuak honakuak ziran: ordu erdixa, 120 pezetan; lehelengo ordua, 210; gerokuak, 100.
- Ertamerikan Mitch hurakanak eragin zittuan kaltieri nolobait aurre egiteko, herriko Gobernuz Kanpako Erakundiak eta Udaleko Gizartekintzak, alkarlanian, kalian egindako erakusketia eta hainbat hitzaldi antolau eban.

Oin dala 365 egun

2008-X-24 / 653. ZKIA.

- Eusko Legebiltzarrerako kanpaina hasi aurretik, orduko hartan Patxi López PSE-EE alderdiko idazkari nagusixa Eibarren izan zan eta hamen egonaldia laburretarako ospitala egingo ebela aurrerau eban.
- Gure herriko Armagintza Museua 24.000 euroko dirulaguntza jaso eban Diputaziñotik, aurretik be jasotako beste 14.000ri gehitu biharrekuak. Ordurako Eusko Jauraritzak 180.000 emon zittuan.
- Patxi Usobiaga eskalatzailliak Europako txapelketia eskurau eban Paris-Beryko Omnisportean irabazi eta gero. Ordurako hainbat txapel irabazitta baekan be, lehelengo aldiz bereganatu eban Europakua.
- Deba baillarako EAJ, EA, EB eta Aralar alderdixak Hitz Hitz ize-neko ekimena aurkeztu eban Euskal Herrixaren erabagitzeko esku-bidiaren eta Ibarretxeren herri-kontsultaren aldeko ekimen gisa.





Lidergoa eta berrikuntza izango dute hizpide ekimenean.

Ostiralak Debegesan bueltan

URRIAREN 30-EAN, GOIZEKO 09.00-ETATIK 11.30-ETARA, EUSKADI INNOVAREN ESKUTIK, DOAKOA IZANGO DEN ENPRESA-JARDUNDIA egingo da Debegesan, 'Ostiralak Debegesan!' ekimenaren barruan. Arduradunen berbetan, "lidergoak eta berrikuntzak gure enpresen eboluzioan duten garrantziari buruz

egingo da berba". Egitarau zehatza ezagutzeko, informazio gehiago eskatzeko edo izenamateko, 943820110 telefono zenbakira deitu (Debegesako Berrikuntza eta Enpresa Saila), pymes@debegesa.com helbide elektronikora idatzi edo Debegesako webgunea www.debegesa.com webgunea kontsultatu daiteke.

Munduko Paisaiak kanpaina

JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAK EUSKO JAURLARITZAREN 'LIBURUTEGIAK TOPALEKU' KANPAINAN HARTUKO DU PARTE AURTEN ERE. Munduko Paisaiak izenburua daraman kanpainarekin bat eginda, Marokori buruzko monografikoa prestatu dute liburutegian: "*Irakurketa gida prestatzeaz gain, Eibarren bizi diren marokiarren laguntzarekin gaiarekin lotutako hainbat jarduera prestatu ditugu*", azaldu di-



gu Eva Alberdi liburutegiko arduradunak. Materiala bihartik aurrera egongo da eskuragarri liburutegian horretarako propio prestatu duten txokoan. Kanpainaren barruan, azaroan hainbat jarduera berezitan parte hartzeko aukera izango da: arabiar gozogintza hitzaldi-tailerra, Marokoko musika kontzertua, henna eta te-aren inguruko tailerrak, hitzaldiak, ipuin kontalari saioa eta argazki erakusketa egingo dira.

anzorik anzo



Umeendako jolaslekuak konpontzen hasi dira

Ziburu-zaura zaharrak kendu eta berriengatik ordezkatzeko dituzte datozen asteotan herriko hainbat jolasgunetan. Ipintzen dituzten ziburu-zaura berriek Umeen Jolaslekuek bete beharreko segurtasun arau eta neurriak beteko dituztela aurreratu dute Udaleko zerbitzu arduradunek: "*Behar horiek egin behar direla eta, beste gauza batzuk hobetzeko ere aprobeztatuko dugu. Alde batetik, jolaslekuen segurtasun zoruaren ordezkari jarraitu bat ipiniko da, erreziklatutako eta koloreztatutako kautxozkoa. Bestetik, umeen jolasleku bakoitzaren erabilera-adinak kartel batzuen bitartez zehaztuko dira*".

Aldaketak izango dituzten jolaslekuak hauek dira: Arratebide 15-Legarregain parkea, Juan Antonio Mogel 20ko parkea, Sossoatarren kaleko 2ko parkea, Polonia Etxeberria kaleko 15. zenbakiko parkea eta Urkizuko parkea. Azken honetan, gainera, gorde beharreko segurtasun distantzia edo tartea bete ahal izateko, ziburu-zaurak beste era batera kokatzeko dituzte eta honezkeron parkean dauden jolasei ume txikiendako (3-6 urte bitartekoentzat) aproposa den "habia-ziburua" ipiniko dute.

eibar kalea

Ardantzeta

Trenbideak kalea zeharkatzen duela eta, bertan egon den geltokiak ere kalearen izen bera jaso du. San Juan kaletik Aldatzerako bidera garamatzen kaleak aldaketa ugari jaso ditu azken urteotan, bertan zeuden etxeak eraitsi eta babes ofizialeko berriak jasotzean. XX. mende hasieran jaiotakoek han ezagutu zituzten Garaje Eibarrés delakoa eta autobus deskapotableak.

Pegora kopurua: 9. Erroldatutakoak: 245.



Espainiako Kongresuak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Kontzertu Ekonomikoa 'blindatzeko' lehen urratsa eman zuen joan den astean. Aurretik EAJ-ko Ricardo Gatzagaetxeberria, PP-ko Antonio Damborenea eta PSE-ko Miren Gallastegi eibartarrak lege proposamenaren defentsa egin zuten.

MIREN GALLASTEGI, PSE-ko legebiltzarkidea:

“Kontzertu Ekonomikoari segurtasun juridiko handiagoa eman nahi diogu”

- Joan den astean Kontzertu Ekonomikoa 'blindatzea' eztabaidatzea onartu zuen Espainiako Diputatuen Kongresuak. Zer ekarriko du honek, aurrera joan eta onartuz gero, Euskadira?

Zerga-araudia zehazten duen erreminta juridikoa eztabaidatzea da joan den astean onartu zena. Gaur egunean, zergen gainera araudia Foru Aldundien eskumenean dago eta ez dauka lege lerrunik, beraz, ez daukate Espainiako beste zerga-araudiek duten babes juridikorik. Aldaketarekin lortu nahi duguna da babes hori berdina izatea Euskadin ere, segurtasun juridiko handiagoa lortzea. Gaur egun edonork egin dezake errekurtoa zerga-araudiaren aurka jurisdikzioaren aurrean. Neurri berriekin, ordea, gainontzeko autonomien zerga-araudiekin parekatzen da eta Konstituzio Auzitegiaren aurrean soilik errekurritu ahal izateke.

- “Bake fiskalaz” egin zenuen berba Kongresuan emandako azalpenean.

Bake fiskalaren kontuan 2000. urtean iritsi ziren akordio batera Ibarretxe eta Aznar buru zeuden Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernua. Akordio politikoa zen, eta ez zuenez laguntza arauemailerik, intere-

sen arabera apurtu ahal zitekeen. Bake fiskala ondo dago, baina estatuko zerga-arauek parekatzen badira.

- Alderdi batzuek aipatu dute aurrekontu orokorrak onartzera itxaron litzatekeela neurri hau onartu aurretik.

Abagune politikoak ez dauka zerikusirik. EAJ-k bere burua Kontzertu Ekonomikoaren buruzagi moduan aurkezten du, baina Kontzertu Ekonomikoa ez da inoren ondarea. Euskaldunen arteko akordioa da, 2007ko ekainaren 29an onartu zena, eta orduan aurrera eraman ez bazen, tramitazioa hauteskundeengatik disolbatu zelako izan zen. 2009ko ekainaren 12an neurria aho batez onartu genuen alderdi guztiok eta planteatutako tramitea hasi zen.

- ‘Blindajeaz’ egiten da berba. Kutsu negatiboa ematen dio berba horrek zuen lege proposamenari?

'Blindajeaz' berba egitean ematen du Kontzertu Ekonomikoa inmunea izango dela, erasoezina. Arau balio perfektua izango duen zerbait izango da, Konstituzioan bertan azalduko delako, baina beti egongo da errekurtoa egiteko aukera. Gure zerga-araua beste autonomiekin parekatzea da



kontua, egoera txarragoan baitago. Beraz, 'blindajea' berba ez da guztiz zuzena.

- Kontzertu ekonomikoa 'blindatzeko' 4. saioa da honakoa.

Ez da zehazki horrela, aurrekoak ezin direlako oraingoarekin konparatu. Hau da euskaldun guztien adostasunarekin Kongresura doan horrelako lehenengo proposamena. Aurretik aurkeztutako proposamenak partidistak ziren eta ez zeukaten guztien adostasunik.

- EAJ eta PSE-rekin batera Euskadiko PP-ak ere defendatu zuen Kontzertu Ekonomikoaren 'blindatzea' Kongresuan; PP nazionalak, hala ere, horren aurka bozkatu zuen. Zer deritzozu?

Dagoena da. Kontraesana da, PP-ko ordezkari autonomiko ezberdinen ezadostasunaren seinale. Esan dezakedana da Euskadiko PP-ren defentsa ez zela pose kontu bat, planteamenduarekin ados baitaude.

- Nahiz eta proposamena gaitzetsi, PP-ko García Tizónek zuen defentsa bikaintzat jo zuen. Maila pertsonalean nola sentiarazten dizu horrek?

Lan deserosoa zeukan García Tizónek egun hartan, izan ere, Euskadiko PP-ren aurkako azalpena eman behar zuen. Oso ondo ulertu zigula, modu onean planteatu genuela... esan zuen, baina aurka bozkatu. Maila pertsonalean zer esan; atsegina da horrelakoak entzutea, baina hori da gure lana eta ahal genuena egin genuen.



Miren Gallastegi, eskuman, PSE-EEko ekitaldi batean.

Photoshop argazkixak erretokatzeko ordenadorerako programak mirarixak egiten dituala esaten da. Hainbesterañokua ez da, baiña errealidadia distorsionatzen dabela nabarixa da, eta Ralph Laurenen publizidade kanpaiña batian ikusi da hori. Frantziako gobernuak, bere aldetik, erretokia egon darian abisatzia nahi dau.

Zer begittantzen jatzu argazkixak erretokatzia?



GARY ARTEAGA
29 urte
langabezixan

Neri begittantzen jata ez dala zilegixa, izan be, jendia engaiñatzen dabe argazkixak erretokatzetan dabenian. Ziur nago aldizkarietan agertzen diran modelo asko kalian ikusi eskero ez genduzela ezagutuko. Halanda be, lantzian behin engaiñatzia be ez dot hain txarto ikusten.



FELI FERNANDEZ
55 urte
etxeoandria

Txarto dago, gaiñontzeuori txarto lagatzen deskuelako. Gaztiek argazkixetan ikusten daben modelo horren modokuak izan nahi dabe eta arriskutsua da hori. Modeluak diran modokuak etarako bazittuen, jendiak ez zittuan hainbeste astakerixarik egingo.

SUSANA ALONSO
39 urte
optikua

Txarto ikusten dot. Bai argazkixak ikusten dittuan aldetik, bai erretokatutako horrengaittik be. Gaiñera, erretokatzekotan, abisau egin biharko eben. Arriskutsua ikusten dot: edertasun kanoekin, gaztiek batez be, eurak modokuak izan nahi dabe eta edozer gauza egin ahal dabe.



JOSE LUIS ALONSO
33 urte
informatikua

Irudixan agertzen danak errealdiarekin zerikusirik ez dakan momentua heltzen darian, erretoke hori txarto dago. Gauza txikiak erretokatzetan badira ez dot txarto ikusten, baiña errealidadia distorsionatzia ez dago ondo, izan be, estandar batzuk fijatzen dira eta jendiaren eredu dira.



Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ **943 12 02 00** Fax: **943 12 02 04**

1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Análisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza

BERRIA: Foto-depilazio Unitatea

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Deba

- 1 **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- 1 Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- 1 Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- 1 Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- 1 Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica
Ehorzketa
Fumeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Krisi ekonomikuaz berbetan hasi giñala hillebete luziak pasau dira. Krisixaren jatorrixa eta soluziñuak inork argitzen ez bazittuan be, esaldi bat behin eta barriro entzuten genduan: *“Okerrena aillegatziar dago, setienbretik aurrera hasiko gara krisixaren aurpegiarik okerrena ikusten”*. Gizartekintza zerbitzuko arduradunak urte hasieratik argi zeken udal aurrekontuetan onartutako dirua ez zala nahikua izango herriko famelixetan agertuko ziran premiñeri erantzuna emon ahal izateko. Baiña, aurrekontuak izandako ezusteko igoeriarri esker, bestelako irakorketia egiñ eben aurreko barixakuan egindako agerraldixan.

Urte honen hasieran, aurrekontuak onartu zittuenian, 368.939 euroekin egin bihar zetsazen aurre herriko famelixen premiñerik larrixeneri. Aurreko urtietako esperientzia ezagututa eta krisialdixaren mamua gaiñian, hasiera-hasierratik esan eben famelixa bakoxtarendako dotaziñua edo lagundutakuen kopurua jaitsi egin biharko ebela nahitta nahiez, numeruak argi egitten eben berba. Baiña panorama baltz horren



Pensiño txikixak jasotzen dittuen jubilau asko pobreziazen mugan bizi dira.

Larrialdi situaziñuetarako laguntzak gora krisixari aurre egitteko

testuinguruan argittasun piskat ikusi dabe askok, aurreko barixakuan iragarri zittuen igoeren barri eukitzian.

Mari Luz Balenziaga (EAJ) Gizartekintzako ziñegotzixak azaldutakuaren arabera, *“Udaleko Gizartekintza sailak Gizarte Larrialdi Egoerretarako partidia %67xan igo dau eta, urte hasieran aurreikusitta eguana baiño 250.103 euro gehixago eukiko dittugu eta, horri esker, premiñerik haundixenak dittueneri pres-taziño gehixago emoteko moduan izango gara”*.

Urte hasieran Eusko Jaurlaritzak emondako dotaziñua iazkua

baiño %10 haundixagua zan, baiña, halanda be, egunetik egunera nabarixagua zan krisi ekonomikua ikusitta laguntasunera-ko eskaeriak be gora egittia aurreikusiten eben. Gauzak holan egonda, eta banaketia ahalik eta modurik justuenian egitteko ahal-egiñari jarraituz, Udalak emondako diru-laguntzetan aldaketak egittia erabagi eban; hau da, bakoxtari emondako laguntasuna izango zala, ahalik eta jende gehixenari lagundu ahal izateko.

Baiña Eusko Jaurlaritzak emondako aportaziño osagarri-xari esker, Balenciagaren berbe-

tan *“onuradun guztieri laguntza-sun ekonomikuak bermatzeko moduan gagoz eta, horrekin batera, kasu askotan emondako diru kopurua igotzeko aukeria be eukiko dogu. Beraz, lehenago be jasotako eskaera gehixeneri erantzun badetsagu, igoera horri esker emondako laguntasunak be haundixaguak izango dira. Beste udalerrri batzuetan horrelako laguntasunak emoteko larri daguazen momentu honetan guk eibartarrondako laguntasunak hobetu ahal izango dittugu”*.

Urte hasieratik hona, urtiaren lehen sei hillebetekuan, Gizartekintzan jaso dittuen laguntza es-

EMAKUME ETA GIZON
MODA

Valenciaga

KONFEKZIOAK

☎ 943 20 22 33

ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan

Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGONA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA:
Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk.

ZERBITZU IRAUNKORRA:
☎ 943 201095 fax: 943 202564

kaera gehixenak erantzuna euki dabela diño Balenciagak eta horretarako 184.609 euro erabili ditue. Izan be, jakin bazekixen seguruenik Eusko Jaurlaritzak bigarren sehillebetekorako ez-ohiko partidaren bat gehittuko zetsala aurretik onartutakuari, baiña ez-ohiko laguntasun hori zenbatakua izango zan jakin ezian tentuz ibiltzia erabagi eben.

Gasto arruntak pagatzen laguntzeko

Larrialdirako laguntasunak errekurso ekonomiko eskasak dittuen famelixeri emoten jakuez, ezinbestian ordaindu biharreko gasto arrunteri aurre egitten laguntzeko: etxiaren alkilerra pagatzeko, hipotekak ordaintzeko, etxian hondatutako zozeren konponketen gastueri aurre egitiñ ahal izateko, dentistara juateko, betaurrekuetarako... Holakuak pagatzeko zailtasunak dittuenak eskatu leikiez laguntasunak, hainbat kondioziño betetzen badittue. Bestiak beste, ezin dabe urtian 10.000 eurotik gorako diru-sarrerarik euki.

Igoera honen barri euki aurretik, eta Udalak banaketarako hartutako neurri barrixerri jarraituta, famelixa bakotxak alkilerra pagatzeko laguntasuna hillian 290 eurokua izatetik 200 euro-

kua izatera pasau zan eta porziño bereko beherakadia euki eben gaiñointzeko laguntasunak. Gizartekintza saillak emondako datuen arabera, urtarilla hasieratik ekaiña amaierara arte euren gana holako laguntzen eskian juandakuak 305 izan dira eta julixotik hona, barriz, 243 eskaera gehixago jaso dittue. Begibistakua da, beraz, krisixak aurrera egitiñ ahala laguntasunerako eskaerak be gora egitten diharduela. Eskaerak egittera doiazenen perfilla be kanbixatzen doiala ikusi dabe zerbitzuko arduradunak, *"lehenago kanpotik etorritako jende asko etortzen jakun, baiña gero eta gehixago etortzen jakuz Eibarko famelixak laguntasuna eskatzera"*.

Gero eta eibartar gehixago

Dana dala, Gizartekintzan jasotzen dittuen eskaera guztiak ez dira zuzenian onartzen, *"urtiaren lehelengo zatixan jasotakuen artian 53 atzera bota genduazen, laguntasunik ez jakuen emon, eskatzen dittugun baldintzetako baten bat betetzen ez ebelako"*.

Iazko datuekin alderatuta, 2008ko lehelengo sei hillebetietan larrialdiko laguntasuna jasotzeko 273 eskaera presentau zittuen eta bigarren seihillebetekuan, barriz, 317 eskaera.



Krisixaren eragiñez eskaerak egitten dittuenen perfilla kanbixatzen doiala diñue.

Errenta basikorako eskaerak be gora

Oiñarrizko errentan be igoeria izango da. Eusko Jaurlaritzak oiñarrizko errentarako emoten daben diruaren gestiñua be Udalaren esku dago. Laguntasun hori eguneroko bizimoduari aurre egitteko zailtasunak dittuendako pentsautakua da. Oiñ arte aittatu dittugun laguntasunak momentu puntaletan emoten badira be, errenta basikorako laguntasunak modu jarraixan, hillero zailtasun ekonomikuak bizi dittueneri emoten jakuez. Hau da, erregular *"hillaren amaierara aillegatzeko"* arazuak dittueneri. 2008xan 249 lagun edo fameli-

xari lagundu zetsen atal horretan eta ixa eskatzaillien erdixa (%40 hain zuzen be) barrixak ziran. Aurten honezkero errenta basikorako emoten diran laguntasunetarako 111 eskaera jaso dittue. Eskaeria pertsona bakarrak egitiñ ezkerro hillian 640 euro emoten jakoz eta famelixan 3 edo lagun gehixago badagoz, barriz, 910 euro jasotzeko aukeria dake. Eta jubilaziño txikixa dakenen pensiñuak osatzeko eskaeriak be tramitatzen dittue Gizartekintzan: 2008xan 99 eskaera jaso zittuen eta aurten, urtia amaittu barik egonda be, 152 eskaera jaso dittuela azaldu dabe arduradunak.

La Movida eibarresa
 Kirala atseginez
 egunero Borja Rodriguezekin,
 arratsaldeko 3etatik 4etara

90.7 Fm

TEEN- AJEA

Miren Zulaikak Beatriz Garcia bere amarekin hartzen du parte lehiaketan.



Musika lehiaketek telebistan duten arrakasta nabaria da eta ETB-k ere badu berea ('Oh happy day' saioaz gain): **Bi Gira**. Kutsu eibartarra du saioak, izan ere, parte-hartzaileen artean hiru daude: **Beatriz Garcia** eta **Miren Zulaika** ama-alabak, eta **Miren Oteiza** (Aramaioko beste baten bikote). **Epailen artean, berriz, Fran Lasuen.**

MIREN ZULAIKA, 'Bi Gira'-ko lehiakidea:

"Amak ni baino hobeto abesten du"

- Zergatik erabaki zenuen **Bi Gira** saioan parte hartzea?

Norbaitek komentatu zidan bikotekako musika lehiaketa egin behar zutela telebistan eta amari komentatu nion. Lotsa ematen zidan berarekin parte hartzea, baina esperientzia ona izango zela pentsatu genuen. Gainera, banekien saioan irakasle ona zegoela; beraz, ikasteko aukera izango nuen parte hartuz gero. Casting bi igaro genituen eta saiorako hautatu gintuzten.

- Zer moduz joan zaizue saioan orain arte?

Programa bi egin dira eta bietan izan gara nominatuak, baina aurrera jarraitu dugu.

-Telebistan aritzeak urduritasuna areagotzen du?

Bai, nahiko urduri ipintzen naiz, baina horrek 'taulak' ematen dizkizu eta, horretan ibili nahi badut, ondo datorkit.

- Noiztik zabilta kantuan?

Koroan bederatzia bat urterekin hasi nintzen eta hor dihardut. Durangon kantua ikasten

hasi naiz, kantu klasikoa, baina datorren urtean kantu klasiko edo modernoaren artean aukeratu beharko dut, eta nahiago dut modernoa.

- Askok entsaizaten duzue saioari begira?

Udan 3-4 abesti eman zizkiguten ikasi eta entsaizteko, eta orduan lanpetuago ibili ginen. Ama lanean ari da orain eta nik azterketak dauzkatz; beraz, ez daukagu denbora larregirik.

- Zer moduz amarekin?

Ni baino urduriago ipintzen da eta, ondorioz, urduri ipintzen nau. Bestetik, esperientzia asko dauka kantuan eta nik baino hobeto abesten duela esango nuke. Askok laguntzen dit eta momentu baxuenetan animatu.

- Noraino iristea espero duzue saioan?

Hurrengo saioan kalera joango garela uste dut aurreko bietan nominatuta egon ostean. Hala ere, amari ondo egiten dugula esan diote askok, beraz, erretzeko nominatu gaituzte agian.

San Andres
Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Toribio Etxebarria, 4

Lehiaketa handia Gaztelekuan

Astero lehiaketa ezberdinak egiten dira Gaztelekuan: ping-ponga, futbolina... Bakoitza bere dohaiak erakusketko aukerak izaten ditu, baina iritsi da guzti hori lehiaketa handian erakusteko, Makrolehiaketan. Hurrengo asteetan zehar, Eibarko gazteek nor baino nor jardungo dute.

Goiz eta arratsaldean egon ostean, aisialdirako momentua heltzen da herriko gazteentzat (etxerako lanak egin ostean, noski). Orduan, motxila bizkarretik kendu eta gustuko dituzten kontuetan aritzen dira (honekin ez da esan nahi eskola gustuko ez dutenik). Aisialdian ariketa ezberdinak egiten dituzte, kirol ezberdinak landu, jolas ezberdinetan aritu eta euren ezagutza garatu ahal duten ekintzetan ibili.

Guzti horiei nolabaiteko irtenbidea emateko, Gaztelekuak Makrolehiaketa antolat

du. Ekintza ezberdinak, hiru pertsonatako taldea, sailkapen orokor bat, jaialdi finala eta saria garaileentzat, sailkapen nagusian puntu gehien lortzen dutenentzat.

Helburu nagusia umeek ondo pasatzea da, baina, bide batez, taldeka lan egiten ikastea eta euren artean euskera-erabilera bultzatu nahi da.


Hiru lagunetako taldeak

Urteak daramatza Gaztelekuak Makrolehiaketa antolatzen eta gazteen harrera ona izan da. Iaz, adibidez, lau pertsonatako bost taldek hartu zuten parte, baina aurten hiru pertsonatako taldeak egitea erabaki dute antolatzaileak. "Beste formula bat bilatu nahi dugu, ea jende gehiago apuntatu eta talde gehiago sortzen diren". Izen-ematea urriaren 25ean amaituko da eta Gaztelekura joatea besterik ez dago horretarako. 12 eta 16 urte bitarteko gazteek hartu ahal izango dute parte bertan.

Makrolehiaketak urriaren 30ean, barixakua, izango du hasiera Gaztelekuan. Horrela, bost asteburutan zehar, aben-



duaren 13ra arte (tartean San Andresak eta abenduko zubia egongo denez, asteburu bi horietan ez da lehiaketarik jokatuko), nor baino nor arituko dira gazteak.



Saria: MP4-a

Lehiaketak lau jardunaldi izango ditu jaialdi finalaren aurretik. Hiruko taldeek beldu-

rezko laburmetrai bat egin beharko dute (telefono mugikor-rrarekin edo bideo-kamerarekin), Kalamuako Parlamentua jokoan arituko dira, kareta sortuko dituzte eta ginkana antzeko bat egingo dute hainbat froga ezberdin uztartuz. Horrela, aipatutako proba bakoitzean taldeek puntuak lortzen joango dira eta sailkapen orokorra zehaztuko da.

Azken egunean, berriz, tortila lehiaketa egingo da. Bertan emango dira azken puntuak eta erabakiko da zein den talde irabazle nagusia. Talde irabazleko kide bakoitzak MP4 bat eskuratuko du, baina besteak ez dira esku-hutsik geratuko, izan ere, egun horretan egindako tortilak jateko aukera izango dute merendolan.



La Salleko DBH 4koak Zarautzen

Urriaren 15ean eta 20an La Salle Azitaingo DBH 4ko ikasleak Zarautzen izan dira surf ikastaro bat egiten eta ikasitako praktikan jartzen. Horrez gain, elkarrekin goiz zoragarria pasatzeko aukera ere izan zuten.

Radio Eibar

CADENA

SER

104,0 FM

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
 uthemek@uthemek.com

UTILES Y HERRAMIENTAS PARA EL MECANIZADO, S.L.

SPK - Zeramika, silizioa
 ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak
 ROY - Diamante eta boraxezko harriak

GREMIOEN GIDA



ANTENAK

AROTZAK

ERREFORMAK

BALATZ C.A.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37

Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94



aluminiozko eta PVC-ko aroztegia

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

Obra gauzatzeko proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Behe errehabilitazioa
etxeetan
Etxeetako errehabilitazioa



ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 ailaproiektuak@hotmail.com

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK



Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

AROTZAK

ELEKTRIZITATEA

GARBIKETAK

INAKI

Egurrezko mota
guztietako lanak

Ateak - Tarimak
Altzariak

Milaflores 10

Tfnoa. 943 20 55 55




ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGIZTAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

**ELECTRICIDAD
EIBAR S.L.**

INSTALAZIO ETA MUNTAIA
ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73



INDUSTRIA GARBIKETA

Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net

EN Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia

EN Aroztegia Ebanisteria
 Obra aroztegia

Egiturak, barruko eta kanpoko atek,
armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodapiesak,
eskilarak, miradoreak, moldurak, aholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201

CRISTALUX
Luzerak

- Mantenimendu garbiketa
- Kristal garbiketa
- Garbiketa orokorra
- Garbiketa bereziak

cristaluxbe@gmail.com
Tfnoa. eta Faxa:
943 20 65 08
Mobila:
659 58 35 32 Ind. Ojanguren, 1 - behea (14 ac)

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta
proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

**Limpieza
Multiservicio
Eibar**

Superficie
mota guztietako
garbiketa eta
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171 Barrena, 26 - 6. C

**TREJO
GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta
mantenimendua

- Barne apainketak
- Mantenimendu eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



IGELTSEROAK



irazabal
E.R.A. S.A.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

KLIMATIZAZIOA

klimatizazioa
energi berriztagarriak
proiektuak



santillán
klimadenda™

Txaltxa-Zelai, 14
Tel. 943 03 10 00 Faxa. 943 53 10 18
info@klimadenda.com www.klimadenda.com



- PINTURAK
- ESTUKOAK
- GOTELE
- PAPERZTATZE
- LAMINATUAK
- KORTXOA
- MOKETA
- SINTASOLA

Arregui y Cortes, C.B.
Ego-Gain, 3 Tel. 943 20 34 09 Mob. 600 587 335

ITURGINTZA

INDA iturgintza



UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK

- Proiektuak eta aurrekontuak
- Baisu eta sukaldeen erreformak

Tfnoa eta Faxe: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63 **Asua-Erreka, 2**

KRISTALAK



ACHA
Kristaldegia

KRISTALARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}

eta faxa: 943 20 39 03



Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxe. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

Pintura
Goi mailako
dekorazioa



Pago Kalea, 35 DURANGO
Tel. / Faxe: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 98

SARRAILAGINTZA



GILTZAK

Era guzietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalaketak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guzietako giltzen kopiak
Trabatutako atek eta segurtasun-kutxak askatzen ditugu

LARRIALDIETARAKO: 943 701 391
(08.00etatik 24.00etara)

Arragueta, 3 www.giltzak.com
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

PINTURAK



Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxe.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24




PINTURAS
ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

Kritikaren Saria Arriagaren ekoizpen birentzat**ANTZERKIA****Sardo Irisarrin
KOLABORAZIOA****Eszenategitik aldenduz**


Orain ongizate gizartean bizi garen honetan, orain guztiok maila sozial ertainekoak garenean, orain inork nahi ez duenean zuzena denaren baino gehiago konprometitu, akaso orain errebindikatu beharko genuke antzerkiaren espazioa. Antzerkiaren bere zereginetako nagusia horretarako prest dagoen publikoa entretenitzea da, baina azken aldian gero eta ahaztuago daukagu, bazterteraino, kulturaren konpromisoa deitutakoa. Senak esaten dit antzez-ekintzaren funtzioetako bat, akaso garrantzitsuena, une horretako gizartea isladatzea dela; hau da, jarraitzen dion publikoak egunero jasan behar duena salatzea. Bertold Brecht maisu handiak esango lukeen moduan, mundu guztiaren gustokoa den ikuskizunak... badu halako akats bat, konpromisoz betetako lan batek ezin baitu eragin berbera sorrarazi kontrako sentsibilitatea dutenen ikusleen artean. Agian, gutxiago pentsatu beharko genuke efektu berezietako antzerkian -horretarako, hor dugu telebista, berarekin lehiatzeko inoiz ere gauza izango ez garela jakinda- eta ikuslearengandik gertuagoko eta, aldi berean, kalitatezkoago antzerkira bueltatu beharko ginatete; entretenitzetik aparte, antzerkiak hunkitu, probokatu, ikuslearengan bere egoera animiko guztiak piztu beharko lituzke. Uste dut publikoak eskertuko lukeela eta muinera bueltatuko ginatetekeela, hau da, kontatzen diguten **Historiara**. Hori izan behar baita aktore baten helburu bakarra... **Istori**o bat kontatzea. Eta hor aldentzen gara batzuetan ikuslearengandik: berarendako lanean dihardugula ahaztu eta egunerokoa bazterrean lagatzen dugu. Ikusten gaituenarekin elkartzen gaituena dago hor. Eguneroko istorio txikiak. Zertarako gehiago?



'CHATEAU MARGAUX' ETA 'LA VIEJECITA' ANTZEZ-LANEK BATZEN DITUEN Arriaga Antzokiaren ekoizpenak ikuskizun liriko onenaren Bartzelonako Kritikaren Saria jaso du. Lluís Pasqualek eta Miquel Ortega maisuak zuzenduriko lana da eta joan den ekainaren 22an estreinatu zen Arriaga Antzokian. Manuel Fernandez Caballeroren zarzuela bi hauen bertsio originala, Pasqualek 1950. hamarkadan irrati-txapelketa dibertigarri batean bihurtu zuena, izan da saritua Bartzelonan. Bilbon ekainaren 22an estreinatu ostean, Bartzelonako Festival Grec-en izan zen, eta Campoamor Atzokian eta Madrilako Canalen Antzokian egotea espero da.

ZINEA**Euskal ekoizpenak hedatzeko laguntzak****EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILAK EUSKAL IKUS-ENTZUNEZKO LANAK NAZIOARTEAN HEDATZEKO**

diru laguntzak eskatzeko epea zabaldu du. Programa honek 'Ninia' izena darama, eta ekoiztetxe eta banatzaile burujabeak laguntzea da bere helburua, diru laguntzak eta sustapenerako baliabideak eskainiz horretarako. Laguntze formula bi biltzen dituzte: bata nazioarteko jaialdi ezberdinetan egoteko stand edo promozio guneak eta bestea egiteko diru poltsak. Diru laguntza hauek, besteak beste, Berlin, Kairo, Cannes, Karlovy Vary, Locarno, Mosku, Mar de Plata, Shangai, Tokyo, Venezia edo Montreal bezalako jaialdiara joateko gastuak estaltzeko balioko dute. Guztira 26.500 euro banatuko dituzte eta eskariak egiteko epea azaroaren 13an amaituko da.

**'Ander' pelikula Toulousen saritua****FRANTZIAKO TOULOUSEKO ZINEMALDIAK ESPAINIAR ZINEMA SARTZEN DU URTERO**

eta aurten egin den XIV. edizioan Roberto Castonen 'Ander' euskal filmari eman dio Urrezko Bioleta. Frantses kulturako 5 lagunez osatutako epaimahaiak aukeratu du film hau eta Zinemaldiaren sari handienarekin batera, 7.500 euroko diru-kopurua eman dio pelikulari. Zinema espainiarra zabaltzeko egiten da jaialdia, eta Javier Fresserren 'Camino', Ventura Ponsen 'Forasters', Helena Tabernaren 'La buena nueva' eta Chus Gutiérrezen 'Retorno a Hansala' izan ditu aurkari Anderrek.



Euskaraz bete-betea eginda eta homosexualitateaz mintzatu den lehen filma da 'Ander', Hainbat sari jaso ditu: filme onenaren saria Lisboa eta Abyce-eko zinemaldietan, eta CICAE saria Berlingan.

VIRGINIA ARAKISTAIN, Indalezio Ojanguren-eko Sari Nagusia:

“Ohorea da irabazi duen lehen emakumea eta lehen eibartarra izatea aldi berean”

- Bartzelonara egindako bidaia batean ateratako argazki sorta batekin suertatu zara Indalezio Ojanguren lehiaketako Sari Nagusiaren irabazle. Inoiz bidai bat izan zaizu hain aprobetxagarria?

Orain dela 10 urte, Klub Deportivoak 75 urte bete zituenen, Londresera bidaia egin genuen eta hainbat argazki atera nituen kalean. Maila nazionalako lehiaketa batera aurkeztu nintzen eta irabazi egin nuen, beraz, oraingoa ez da lehen aldia izan.

- Argazki irabazleak bitxiak, behintzat, badira. Margotuta daudela ematen du.

Arkitektura hartu dut gaitzat. Bartzelonako Mapfre dorreak eta alboan dagoen jatetxe bat dira (Hollywood Planet zena, uste dut). Iaz argazkiak ateratzen egon nintzen han, eta aurtan Katalunian oporretan izan naizenez, espresuki joan naiz hara argazkiak egitera. Txuribeltzean daude, kontrastea daukate... bai, aipatu didate ez direla ohiko argazkiak.

- Zer izan da garrantzitsuena: argazkiak hartzeko unea edo

hauek ordenagailuko laborategian tratatzea?

Ordenagailuan ez dut hainbeste lan egin, baina egindakoa ondo egin behar izan dut. Argazkia hartzeko orduan argi ona zegoen eta koloretan ere ondo irten ziren. Ondoren txuribeltzera pasatu, tapatu batzuk egin zona batzuetan, maila ezberdinak eman eta kitto. Hasiera batean argazkia ondo ateratzen baduzu, gero ez dago lan asko egin beharrik. Bai argazkia egitea, bai ordenagailuan tratatzea dira garrantzitsuak.

- Modu digitalean egindako argazkiak dira. Digitalak erromantizismoa kentzen dio argazkilaritzari?

Bai. Laborategian likido eta abarrekin ibiltzea gustuko nuen, baina horrek denbora gehiago eskatzen du eta azkenean kostatu egiten zitzaidan Portaleara joan, ordua eskatu eta arratsalde osoa han pasatzea. Bere xarma zeukan argazkia nola osatzen zihoan ikusteak, baina digitalarekin askatasun handiagoa daukazu eta argazkia gehiago kontrolatzen duzu. Erosoagoa da, gainera.




- Indalezio Ojangureneko Sari Nazionala irabazten lehen eibartarra eta lehen emakumea izan zara.

Ohore handia da niretzat. Gainera ez nuen espero, izan ere, argazkilaritza munduko jende potentea aurkeztzen da. Zortea eduki behar da pixka bat, gauza subjektiboa delako.

- Pentsatu al duzu argazkilaritzara dedikatzea?

Ez, denborapasa da niretzat. Gainera, zaila da, eta konpetentzia gero eta handiagoa da. Bestalde, orain gustuko ditudan gauzak egiten ditut, eta maila profesionalean arituz gero, seguru nago hain gustuko ez ditudan hainbat gauza egin beharko nituzkeela.



Indalezio Ojanguren Saria Eibarrera

Pablo Freijo, Isabel Díez eta Iñaki Caperochipik osatutako epaimahaiak zapatuan erabaki zuen Indalezio Ojanguren XXII. Argazki Lehiaketako sariak nori eman. Sari nagusia, ohorezkoa, argazki bilduma onenari emandakoa, Virginia Arakistain eibartarrak eskuratu du, Bartzelonari buruzko argazki sortarekin. Indalezio Ojanguren sariak, berriz, Benito Canterok (Bergara), Javier P. Fernándezek (Berango), Carles Verdu i Prats-ek (Bartzelona) eta Emilio Muñozek (Bilbo) eraman dituzte. Euskal Herri mailako sarietan, lehena Juan Antonio Palacios eibartarrentzat izan da, bigarrena Rafa Herreroentzat (Irun) eta hirugarrena Jose Agustín Gurrutxagarentzat (Bergara). Eta herri mailako sariak Maite Beistegi, Idoia Bustindui eta Javier Oscar Bagliettorentzat izan dira.

Erakusketa hilaren 30ean

Euskal Herriko zein estatu mailako argazkilariak erakartzen dituen lehiaketan 70 lagunek hartu dute parte aurtan, 83 bilduma eta 266 argazki aurkeztuta. Lan sarituak zein aukeratutako beste batzuk urriaren 30etik aurrera ikusgai izango dira, Portaleko erakusketa aretoan. Sari banaketa ekitaldia erakusketaren inaugurazioan bertan egingo dute.



Euskadiko apnea txapelketa Ipuruan azaroan

AZAROAREN 21-EAN EUSKADIKO APNEA TXAPELKETA JOKATUKO DA IPURUA KIROLDEGIKO igerilekuan. Zapatu horretako proba open izanda, kirolari euskaldunekin batera, Nafarroa, Errioxa, Madril, Balear Irlak eta Kanariarretakoak izango dira eta baita Frantziako Pau-eko Ocean klubeko hainbat lagun; guzti horrek nazioarteko maila ematen dio Eibarko Klub Deportiboko Ur-azpiko batzordeak antolatutako txapelketari. Apnea estatiko eta dinamikoko txapelak izango dira jokoan: lehenengoan denbora gehien lortzea da helburua; eta bigarrenean, aldiz, distantzia gehien osatzea, horretarako aleta bereziak erabiliz.

EIBAR KE-K BALIO BIKOITZA IZAN DEZAKETEN PUNTUAK JOKATUKO DITU DOMEKAN GASTEIZEN. Arratsaldeko 17.00etan hasiko den norgehiagokan, Alavés sailkapeneko bigarrena izango du aurkari, azken hau eibartarren lidergoaren bila zelairatuko dena. Puntu bakarreko aldea dago sailkapeneko goiko aldean batzuen eta besteen artean eta, liga hasi aurretik, biek ere mailaz igotzeko lehian izango zirela espero bazen, une honetan argi dago bietatik inork ez duela nahi atzean geratzea. Viadoren gizonak, partidu batzuetan nahiko justu, baina irabazten jarraitzen dute Ipuruan: puntu guztiak batu dituzte. Partidurako, Fali eta Lombraña errekeratu dira; Garro, bestalde, baja izango da segurue-



Alavés eta Eibar -batzuetan igo, besteetan jaitzi- azken aldian maila berean dihardute.

nik.

Bombonerazoa bueltatuko da


Azaroaren 1ean, Eibar Football Taldearen Ipuruako hurrengo partiduan, aspaldiko ohitura bat berreskuratuko da: Bombonerazoaren jaurtiketa. Denboraldia amaitu arte, etxeko partidu guztietan, bazkideen artean zozketa bidez aukeratutako

bazkide bi izango dira zelai erditik baloia jaurtitzeko gola sartzeko ahaleginean; asmoa betetzen dutenen artean, denboraldi amaieran beste zozketa batek erabakiko du zein den azken irabazlea (berarendako izango dira lagun birendako bidaia Dominikar Errepublikara eta igoera faseko bidaiak doan

Lehenengo postu bat eta bigarrena bi Ipuruako gimnastentzat

HONDARRIBIKO GOIZALDE FRONTOIAN JOKATUTAKO GIMNASTIKA ERRITMIKAKO I. IZAR LEKU TORNEOAN, Ipuruako gimnastak garaile izan ziren 1. mailan eta bigarren postuan sailkatu ziren seniorretan eta infantiletan. Proba bi hauetan kale egin zuten eibartarrek lehenengo errotazioan eta, bigarrenean askoz hobeto jardun arren, ezin izan zuten galdutakoa errekeratu eta 1. postuaz jabetu. Donostiako Izar Lekuk irabazi zuten seniorretan eta Gasteizko

Beti Aurrerak infantiletan. 1. mailan, bestalde, eibartarrak izan ziren onenak, Iruñeako Alaia Klubaren aurretik. Euskadi, Nafarroa, Gaztela-Leon eta Madrilgo klubetako gimnastak hartu zuten parte estrainekoz jokatu den torneoan. Ipuruarekin hartu zuten parte: Merino, Tejedor, Jauregi, Jiménez eta Afonso 1. mailan; Laskurain, Gamundi, Ibaibarriaga, Horna eta Alonso seniorretan; eta Fernández, Egaña, Bedia, Yarza, González eta Alegría infantiletan.



Laskurain eta Ibaibarriaga gimnastak.




Asador Azitainek galdu areto-foballean

ARETO-FOBALLEKO JUBENIL MAILAKO HERRIKO TALDEAK AURREKO ASTEBURUAN JOKATUTAKO PARTIDUAREN FOTOKOPIA eskaini zигun oraingoan ere eta, izandako aukerak aprobetxatu ez zituenez, galdu egin zuen berriro gol batengatik. Gaztetxe Lazkaok 2-1 irabazi zien eibartarrei, lehenen-

go zatia bana berdinduta amaitu eta gero. Asador Azitaineko gola lmanolek sartu zuen eta 2. zatiko nagusitasuna atearen aurrean gauzatu ez zenez, hiru minuturen faltan jasotako golak eibartarrak esku hutsik etortzea ekarri zuen. Domekan Pinturas Makax hartuko dute Ipurua kiroldegian, 09.30etatik aurrera.

Buruz-buruko bi Astelenako denboraldi estreinaldian

PILOTA PROFESIONALEKO LAU ETA ERDIAREN BARRUKO TXAPELKETAREN NEURKETA BI JOKATUKO DIRA DOMEKAN Astelena frontoiaren denboraldiko lehen jaialdian: bat 1. mailakoa izango da, Aspeko Saralegi eta Asegarceko Asier Olaizola protagonista izango duena; eta bestean, 2. mailakoan, Arrutik eta Cabrerizok neurtuko dituzte indarrak. Jaialdiari hasiera emango dion partiduan, Del Rey eta Fernando Goñik osatutako bikoteak Olazabalek eta Lascurainek osatutakoari egingo dio aurre. Jaialdia, ohikoa denez, 17.00etan hasiko da.



Asier Olaizolak (argazkian Belokirekin) ez du erraz izango Saralegiri irabaztea.

Arrate-Cuenca gaur 21.00etan

HIRUGARREN ASTEZ JARRAIAN ARRATEK BARIKUAN JOKATUKO DU PARTIDUA. Oraingokoan Cuenca 2016 hartuko du Ipuruan, talde biendako neurketa garrantzitsuan. Gaztela-Mantxako taldea eibartarrendandik puntu bakarrera daude eta azken postu bietatik ihes egiteko borroka horretan sartuta dago, Arrate moduan. Morrazoko Cangas da orain arte amore ematen hasi den talde bakarra, baina maila galtzeko bigarren postua ez dago hain argi eta horren bihurtzen ditu gaurkoa moduko partidua hain garrantzitsu. Julian Ruiz entrenatzaileak Redei, Cultura eta Beljanskirekin kontatzeko aukera izango du.



Ganix Rodríguez, Asola-Berriko onena San Miguelen

EUSKADIKO XX. HIRU-TXIRLO BOLA TXAPELKETAK EZ DU HASIERA LAR ONA IZAN Eibarko bolarientzat, Ganix Rodríguez Asola-Berriko ordezkari onena 6. postuan sailkatu baitzen San Miguelen jokaturako 1. jardunaldian. 63 bolarik hartu zuten parte jaurtialdian eta jokatzeko zen bolatokiko ordezkari bik bota zituzten txirlo gehien:

Joshua Lizundia eta Iker Izagirre elgoibartarrak zarpina txirlo etzan zituzten. Txirlo bakarrera sailkatu ziren Angel Ibarluzea (San Miguel) eta Sebastian Aranzabal (Elgeta) eta bira geratu ziren San Migueleko Javier Osoro eta lehen aipaturako Ganix. Bigarren jaurtialdia bihar izango da Marokinako Barinagan, betiko lez 17.00etan hasita.



Klubaren arteko pilota txapelketa

GAUR, 20.15-ETATIK AURRERA, afizionatu mailako partidua bi jokaturako dira Astelena, biak ere Gipuzkoako Klubaren arteko txapelketari dagozkionak. Agirresarobe-Erik jubenil mailako bikoteak Zestoako ordezkariak osatutakoari egingo dio aurre eta, jarraian, senior mailan, Unamunzaga-Agirrebeñak Lasarte-Oriako bikotearen aurka jardungo dute, nor baino nor. Aurreko asteburuan, bestalde, Etxaniz-Egaña bikoteak garaipen baliotsua lortu zuen Lasarte-Oriakoan aurrean eta sailkapeneko buruan kokatu da; Unamunzaga-Agirrebeña bikotea ere irabazle izan zen Beasainen, eta sailkapenean gora egin dute.



Deportiboko ordezkari bi Euskadiko squash selekzioarekin

ESPAINIAKO TXAPELKETAN PARTE HARTZEKO EUSKADIK OSATUTAKO SELEKZIOAN, Eibarko Klub Deportiboko Alberto Ferreirrok eta Sergio Salgadok hartu dute parte; eurekin batera, Markus Schwarz-ek (Sestao), Jose Luis Unanuek (Mundaiz) eta Miguel Cabanillasek (Bilbo) osatu dute boskotea. Guztira, 11 selekzio izan dira Eltxera joan direnak txapelketa jokatzera.

Saskibaloian: batek irabazi, besteak galdu

IPURUAN HASI ZUTEN DENBORALDIA AURREKO ZAPATUAN FEDERATUTAKO gure herriko talde biek, tonu desberdineko emaitzekin izan bazen ere. Ruibal izenarekin jokaturako duen lehengo Baloncesto Eibar edo Novamark-ek 70-63 irabazi zion Oñatiko Aloña Mendiri, atsedendira eibartarrak 26-34 atzetik joan eta gero. Taldeko saskiratzaile onenak Aitor Azurmendi,

18 punturekin, eta Sergio Sampedro, 17rekin, izan ziren; Gergori Prieto eta Joan Arriaga, bakoitza 13 punturekin, ondo moldatu ziren ere. Katu-Kalek, bestalde, egurra jaso zuen Gabi Jattetxearekin (38-60). Atsedendira arte, defentsak nagusitu ziren partiduan eta 20-22koa erakusten zuen markagailuak. Fito izan zen saskiratzaile onena (21 puntu).

Espainiako II. Errepublikako Ministro Kontseiluko azken presidentearen bilobak hitzaldia eskainiko du urriaren 29an Portalean 19.00etan. Carmen Negrín bere aitxixa Juan Negríni buruz arituko da. Parisen bizi da Carmen, aitxixa bizi zen etxean. Bere aurka esandako gezurrak argitu nahi ditu Carmenek.

CARMEN NEGRIN, Juan Negrínen biloba:

"Francoren etsairik gogorrena: nire aitona"

- Nola gogoratzen duzu aitona, Juan Negrín?


Berarekin 6 urte eta erdian bizi izan nintzen; beraz, oroitzen asko ditut. Bere irrifarre aurpegia datorkit gogora. Erabat exijentea zen eta hori izan zen hain urrutira iristearen arrazoi bat. Gogoratzen dut Errepublikaren plater txiki batzuk genituela eta 'Plus Ultra' ipintzen zuela bertan. Bera ere horrelakoa zen, 'Plus Ultra', beti muturrera. Bere azken urteetan ahizpak eta biok tratatu asko izan genuen berarekin.

- Espainiako II. Errepublikako Ministro Kontseiluko azken presidentea izan zen. Ulertu gabeena ere?

Francoren etsairik garrantzitsua zen eta honek ahal zituen gauza guztiak egin zituen nire aitonaaren legenda handitzeko. Bestetik, errefuxiatuek, euren egoera zela-eta, errudun bat behar zuten, eta nire aitona izan zen hori. Berak dena jasaten zuen. PSOE alderdi barruko borroka areagotu, handiagotu eta eraldatu egin zituen Francok; ondoren, ahaztu egin zuten bere figura. Anarkistek gorroto zioten, frankistek ere, eta komunistak izan ziren bere momentuan lagundu zioten bakarrik.

- Politikoa izateaz gain, sendagilea ere bazen.

Humanista zela esango nuke. Medikuntza egiten zenez, jendearen bizitza interesatzen zitzaion, eta politikara eramaten zuen hori. Fisiologo, politikoa eta ekonomista zen. Frankistek sendagile bat estatu baten finantzen kargu egitea kritikatzeko zuten. Pentsa! beste askok finantzetan politikari onenen artean kokatzen duten bitartean.



- Zein izan da, zure ustez, Juan Negrínek egin den bidegabekeria handiena?

Berari propio ez dakit zeinek egin zion min gehien, ondo gordetzen baitzuten tristorak. Memorietan azaltzen denez, Moskuko errearen kontua eta Andreu Ninen heriotzaren arduraduntzat hartzeak min asko egin zion. Moskukoaren kasuan min egiten zion berak lapurtu zuela esatea, oso eskuzabala zelako, edozeini laguntzeko prest. Urrea Espainia defendatzeko bidali zuten, errusiarrek laguntzeko. Ninen heriotzaren kasuan, bestetik, berak ez zuen zerkusirik; errusiarrek hil zuten, eta bere artxiboko dokumentuetan ikusten da hori.

- Zein lan diharduzu egiten aitonaaren artxiboaren inguruan?


Artxiboa zaindu eta ezagutzera ematea nahi izan dut, batez ere. Esandako gezur guztiak demostratu nahi ditut, frogekin justifikatuz. Ez nekien artxibo horretan zer aurkituko nuen, zein puntutarainoko informazioa izango zuen. Eta aipatu behar dut: harrera ona izan du artxiboaren ezaguerak. Bertako edukia da garrantzitsua.



Ainhoa Arteta, Sostoaren 25 urteak ospatzeko

SOSTOA ABESBATZAREN 25. URTEURRENA OSPATZEKO ANTOLATUTAKOEN ARTEAN JENDETSUENETAKOIA izango da biharkoa: Ainhoa Arteta sopranoak 22.00-

etan kontzertua emango du San Andres elizan eta sarrerek salgai ipini eta berehala, egunean bertan denak saldu zirela kontuan izanda, ez da hutsunerik izango elizako jarlekue-tan. Zati bitan banatuta egongo den kontzertuan Rubén Fernández-Agirre pianojolea lagun izango du soprano ezagunak. Udalak eta Kutxak diruz lagundutako kontzertura-



ko sarreraren salmentan jasotako dirua San Andres zaharren egoitzari laguntzeko izango da.

Sostoa Eguna arrakastatsua

Bestalde, aurreko zapatuan ederto pasatu zuten eguna Sostoa kideek zein inoiz abesbatzaren parte izan direnek, Sostoa Egunean: jaiarekin bat egitera animatu zirenetako askok Portalean hasi zuten eguna, abesbatzaren ibilbidea jasotzen duen erakusketa bisitatuta. Ondoren, tabernarik taberna kantuan ibili eta gero, Arrate hotelean bapoz bazkaldu zuten.



Lau abesbatza XVII. Musikaldian

UDALAK, HEZKUNTZA ESPARRUAK ETA TOLOSAKO EKINBI-DE ETXEAK LAU ABESBATZAREN KONTZERTUAK EKARRIKO DIZKIGUTE Coliseoraino, Eibarko XVII. Musikaldian. Astelehe-nean Ondrásek Czek (Txekiar Errepublika) umeen abesbatzak eskainiko du kontzertua. Hilaren 26an Peiyang Chorus (Txina) kamarako abesbatzaren txanda izango da eta biharamonean Katalunia-ko Cor Infantil San Cugat izango da protagonista. Azaroaren 1ean Esloveniako Mixed Chamber Choir Krog abesbatzaren emanaldiak agurtuko du Musikaldia. Emanaldi guztiak 20.00etan izango dira eta sarrerek 3 euro balio du.

Gasteizko katedralera irteera Kulturekin


ARRATE KULTUR ELKARTEAK IRTEERA KULTURALA ANTOLATU DU AZAROAREN 7-RAKO, Gasteizko katedrala bisitatzeko. Autobusa 09.30-etan irtengo da Ego Gaineko autobus geltokitik eta katedrala zein Gasteizko alde zaharra bisitatzeko aukera izango da. Bisita euskerazko talde bitan eta gaztelarazko bakarrean antolatzeko asmoa dute eta, antolatzailen berbetan, "hilaren lehenengo zapatua izanda, Gasteizko Alde Zaharreko dendariak kalean antolatzen duten azokarekin egingo dugu topo". Buelta 19.00ak aldera egitea



aurreikusi dute. Txangoaren prezioa 30 eurokoa da bazkideentzat eta bazkide ez direnentzat, berriz, 33 eurokoa (auto-

busa, sarrerak eta bazkaria barne). Interesa dutenek 678351685 telefono zenbakian eman dezakete izena.


Bertsolari txapelketa Nagusiko finalerako sarrerak



HANKAMOTXAK BERTSO AN BARAKALDOKO BEC-EN
ESKOLAK ABENDUAREN 13- JOKATUKO DEN Bertsolari

Domekan itxiko dute Liburu Azoka

AURREKO BARIXAKUAZ GEROZTIK ETA DOMEKARA ARTE, Eibarko Liburu eta Diska Azoka martxan egongo da Untzagan. Udaletxeko plazan ipini dituzten salmenta-postuetan literatura eta musika arloko azken berrietasunak erosteko aukera eskaintzen dute, %10eko deskontuarekin. Zapatu eta domekan 11.00etatik 14.30etara eta 17.00etatik 21.30etara zabalduko dituzte postuak eta gaur, berriz, 21.00ak arte egongo dira zabalik.



Liburuak begiratu eta erosteko aukera dago goizez zein arratsalde. / LEIRE ITURBE

Txapelketa Nagusiko finalerako sarrerak eskuragarri jarri ditu Eibar eta inguruko bertsozaleentzat, Arrate Kultur Elkartearen tabernan. Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen bazkideek www.bertsosarrerak.eu webgunean erosi beharko dituzte finalerako sarrerak (Kultun ez da bazkide sarrerarik salduko). Finalerako sarreraz gain, BECera joateko autobusa ere egongo da Eibartik eta, BECen bertan bazkaltzeko aukera ere eskaintzen denez, bazkaltzeko tiketak eskuratzeko aukera ere egongo da. Sarrera arruntak 26 euro balio du, bazkarirako txartelak 20 euro eta autobuserako txartelak, berriz, 12 euro. Informazio gehiagorako www.txapelketanagusia.eu webgunera jo daiteke.



Ego Ibar zine kluba bueltan

ZINE KLUB EMANALDIK HEZKUNTZA ESPARRURA BUELTAN IZANGO DIRA datorren astetik aurrera, Ego Ibarren eskutik. Ohikoa denez, eguenetan izango dira emanaldiak, 17.30etan lehenengoa eta 21.00etan bigarrena. Sarrerak euro bi balio du. Ikasturteari hasiera emateko aukeratu duten filma 'Il Divo', Giulio Andreotti eta haren ingurukoak protagonista dituen Paolo Sorrentinoren lana izan da.

laburrak

J.L. MARTINEZ DEBAN Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordeko José Luis Martínez argazki erakusketa martxan dago Debako Turismo Bulegoan. Azaroaren 1era arte bisitatu daiteke erakusketa, bulegoa zabalik dagoenean.

BERTSO PAPER LEHIAKETA San Andres bertso paper lehiaketan hartzeko epea azaroaren 6ra arte egongo da zabalik. 16 urtetik gorakoen mailan Euskal Herri osoko lanak onartuko dira (4 puntu edo gehiagoko 6 bertso aurkeztu beharko dituzte). Lehen Hezkuntzako ikasleek bertso bana edo kopia bi aurkeztu beharko dituzte eta DBHkoek, berriz, bertso bi edo lau kopia. Lanaren 3 kopia, gaitzizzenarekin sinaturik eta gutunazal itxian, gaitzizena identifikatzeko datuak jasota, ...eta kitto! Euskara Elkartearen entregatu beharko dira.

MAKROLEHIAKETA Errota Gaztelekuak Makrolehiaketa ospatuko du eta bertan parte hartzeko izen-ematea domekara arte egin daiteke, gaztelekuan bertan. Hiru lagunez osatutako taldeek har dezakete parte lehiaketan eta guztira bost proba gainditu beharko dituzte. Txapelketa urriaren 30ean hasiko da.




Jorge
Beorlegi

Horoskopoa

Kasualitatea ote? Kontua da pasa den asteko ...eta kitto!-ren 24. orrialdean nire horoskopoa argi uzten zidala zer egin behar nuen: *Itxaron gauzak amaitu arte beste ezer hasi aurretik. Gauzak erdizka lagatzen badituazu, okerragoa izango da, ez duzulako ez bata ez bestea egingo.* Benetan! Ez dut asmatu! Begiratu aurreko asteko alea! Taurus naiz. Edo hori esaten dute izarrek, behintzat. Eta horrelaxe gertatu da. Udal Euskaltegian egin dudana 9 urteko ibilbidea aste honetan bertan amaitu da eta bide berri bati ekin beharko diot hemendik aurrera. Zein ote? Hori oraindik ezin dut igarri baina ezertan hasi baino lehen, hobe aurrekoarekin bukatu. Eta, txiripaz edo, ...eta kitto!-koek, aspaldiko partez, ostiral honetarako eskatu didate zutabea. Gezurra dirudi honek guztiak! Euskaltegia Casa del Pueblon zegoen garaian bertako ikaslea izan nintzen eta urte batzuk beranduago irakasle bihurtzeko aukera eskaini zidaten. Denbora tarte honetan lana baino askoz gehiago, eta aberasgarriagoa, topatu dut ikasle eta, batez ere, lankideen artean. Liburu batzuk, ehundaka paper, eta zenbait traste sartu ditut motxilan egun hauetan. Memoria USB txiki horietako batean pilatu dira azken urteetan sortutako artxiboak. Bizi izandako egun zoragarri asko eta ezagututako lagunak ere nire baitan daramatzat; une txarrak, berriz, nahiago dut zakarrontzian geratzen badira. Ea zer dioten orain izarrek!

Errabal musika jaialdi ibiltaria martxan

GAUR HASI ETA DATOZEN EGUNOTAN SEIGARRENEZ EGINGO DA ERRABAL MUSIKA JAIALDI IBILTARIA, Errabal kultur elkartearen eskutik Deba bailarako hainbat herritan (Eibar, Soraluze, Mutriku eta Elgetan). Aurtengo kartela Miguel Salvador, Organiks, Bill Lyerly eta Mokoomba talde afrikarrak osatzen dute. Lehe-



Eibar Kantuan arrakastatsua

AURREKO EDIZIOETAN LORTUTAKO ARRAKASTARI EUTSIDIO EIBAR KANTUAN JAIALDIK ORAINGOAN ERE. Zapatu gauean Astelena frontoiak jendez gainezka egin zuen, Deparkel Debabarrena Parkinson Elkarteak antolatutako jaialdian. Ventos de Saudade, Los Puma, Duo Plaentxi, Los Camperos, Mikel Urkola eta Voces y Cuerdas taldeekin batera Goruntz abesbatzak osatu zuen luxuzko kartela. Hego Amerikako kantuak, Portugal aldeko doinuak eta euskal kanta ezagunak entzun ziren Jesús Mari Bilbao 'Bilbo' zenari omenaldia eskaintzeko aprobeztatu zen kantaldian.



Donostiako Organiks taldeak Mutriku eskainiko du kontzertua domekan.

nengo emanaldia gaur 20.30etan Miguel Salvadorrek Coliseoan eskainiko duena izango da (5 euro). Bihar, berriz, Amerikako Estatu Batuetatik datorren Bill Lyerly Blues Band taldeak Soraluzean, liburutegiko atarian joko du 22.00etatik aurrera. Eta domekan, Mutrikuko Zabiela kultur etxeak 19.00etatik aurrera Organiks talde donostiarraren kontzertua hartuko du. Jazz jaialdi ibiltaria agurtzeko, Zimbabwetik etorritako Mokoomba taldeak Euskal Herrian eskainiko duen kontzertu bakarra Elgetan emango du, Espaloia kafe antzokian (urriaren 31n, 22.30etan).

Miguel Salvador Project Coliseoan

Errabal Jazz programaren barruan eta Eibarko XVII. Mu-

sikalidiari hasiera ematen, gaur iluntzean, 20.30etan hasiko da Miguel Salvador Project taldearen emanaldia Coliseoan. Miguel Salvador (gitarra), Jonathan Hurtado (pianoa), Gonzalo Tejada (kontrabaxua) eta Hasier Oleaga (bateria) musikariek Getxoko Jazzaldian aurkeztutako disko berriaren aurkezpena egingo dute gurean.

EUSKARAREN


EUSKADI SARIAK EMANGO DIRA AZAROAREN 24 AN.

Euskarazko eleberrin onenaren Espainiako kritikaren saria lehendabizi, Espainiako Narratiba Sari Nazionala ondoren, eta orain Euskadi literatura saria jasotzeko hautagai da Kirmen Uribe *Bilbao-New York-Bilbao* eleberrarekin. Azken sari hau jasotzeko, berarekin batera, Harkaitz Canoren *Zinea eta literatura*, Luis Garderen *Gertakarien urteza*, Xabier Leteren *Egunsentiaren esku izoztuak*, Anjel Lertxundiren *Zoaz infernura, laztana* eta Juanjo Olasagarrenen *T (tragediaren poza)* dira hautagaiak. Euskadi sarirako aukeratutako liburu artean, hiru eleberrin (Lertxundirena, Olasagarrenena eta Uriberena), poema liburu bi (Garderenena eta Leterena) eta saiakera bat (Canorena) daude. Haur eta gazte literaturan, lau dira aukeratutako liburuak: Juan Kruz Igerabideren *Amilami*, Fernando Morilloren *Leonardoren hegoak*, Eider Rodriguezen *Nikoleta eta gava* eta Ruben Ruizen *Anekdotak*. Horiez gain, aurten, lehendabizikoz, ilustrazioko Euskadi saria ere emango du Eusko Jaurkitzak.


TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguztana aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, EDU, aurreko barixakuan urtiak egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, ITZÁ, gaur sei urte betetzen dozuzelako. Muxu haundi-haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, EÑAUT Leiaristi, aitzita-amama, osaba-izeba eta lehengusu-lehengusien partez. Batez be, Itxasoren partez.



Zorionak, GORKA Latorre Lasuen, zure 4. urtebetetzian. Eta, ongi etorri, Mikel. Muxu haundi bat osaben partez.



Zorionak, ENARA, gure etxeko sorgintxuak astelehenian lau urte beteko dittu-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, GERMAN González San Vicente, domekan hiru urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat aitta, ama eta etxekuen partez.

zinea Coliseoan

23an, 22.00etan; 24an, 17.00, 19.45 eta 22.30etan
25ean, 17.00 eta 20.00etan; 26an, 20.30etan

"Pequeños invasores"

Zuzendaria: John Schultz
 Aktoreak: Ashley Tisdale, Robert Hoffman, Andy Richter, Kevin Nealon...



Ume talde bat oporretan da familiarekin. Oso txikiak baina oso gaiztoak diren estralurtarrak ailegatu dira Lurrera eta hau suntsitzeko asmoa dute. Gurasoek jakin barik, ume taldea estralurtarren aurka aritu beharko da...

"La clienta"

Zuzendaria: Josiane Balasko
 Aktoreak: Nathalie Baye, Eric Caravaca, Isabelle Carré, Josiane Balasko...



Judith-ek 50 urte ditu; ederra da, lan ona du, dibortziatua eta bakarrik bizi da. Gizonezkoak kontratatzen ditu harreman sexualetarako eta horrela ezagutu du Patrick. Benetan Marco da honen izena eta ezkondata dago...

"Si la cosa funciona"

Zuzendaria: Woody Allen
 Aktoreak: Larry David, Evan Rachel Wood, Ed Begley Jr., Patricia Clarkson...



Nueva York-en bizi den gizon batek aldaketa nabarmena bizitzea erabaki du. Bizitza bohemia izan du beti gogoko, baina ez du aukerarik izan orain arte. Hegoaldeko neska bat ezagutuko du bizitza berri horretan eta horrek aldaketa gehiago ekarriko du...

"District 9"

Zuzendaria: Neill Blomkamp
 Aktoreak: Sharlto Copley, David James, Jason Cope, Mandla Gaduka...



Orain 30 urte estralurtarrak ailegatu ziren Lurrera. Laguntza eskatu zuten, euren planeta deseginda baitzegoen. Hegoafrikan euredako leku apartekoa prestatu zuten, lurreko jendearengandik urrun, baina denborarekin arazoak hasi dira...

DENBORAPASAK

SUDOKUJA

			8	6			3
5	6				9	7	
	7		4				9
			3	8	4		1
2			9		5		6
		1					3
3			5			8	7
6	8		7	3			
7	2						

7	9	5	3	4	6	1	2	8
1	4	3	2	8	5	9	7	6
2	8	6	1	9	7	3	5	4
6	5	2	9	7	4	8	3	1
9	3	1	6	2	8	5	4	7
8	7	4	5	1	3	2	6	9
4	1	9	7	5	2	6	8	3
3	2	8	4	6	9	7	1	5
5	6	7	8	3	1	4	9	2

AURREKOAREN EMATZA

JAIOTAKOAK

- Maitane Arizbet Acha Suárez. 2009-X-5.
- Maddi Larreategi Gómez. 2009-X-13.
- Julen Aranzabal Martín. 2009-X-15.

HILDAKOAK

- Isabel Molero Calvo. 94 urte. 2009-X-15.
- Elena Larrarte Zurutuza. 74 urte. 2009-X-15.
- Pedro Rodríguez Torinos. 68 urte. 2009-X-17.
- M^o Angeles Elizburu Larreategi. 56 urte. 2009-X-17.

horoskopoa

ARIES

Aurrera eta atzera ibiliko zara zerbaiten bila, baina ez duzu zorte handirik izango. Hala ere, gauza asko aurkituko dituzu bilaketa horretan.

TAURUS

Lagunak, familia eta inguruko guztiak ibili dira modu batean edo bestean nahiko kaxkar, baina zu osasuntsu zaude eta horrela jarraituko duzu.

GEMINI

Lasaitu zaitez, ez estutu hainbeste, ez delako hainbesterainokoa izan. Bai, ezustekoa izan da, baina zerbait gertatuko zela ikusten zen.

CANCER

Hartu erabakiren bat berandu izan baino lehen. Ondo pentsatzeak ez du esan nahi denbora luzean pentsatzen egotea. Bide ona hartuko duzu.

LEO

Argazki-kamerek ez zaituzte asko maite; argazkietan agertzen zarena baino ederragoa zara-eta. Bestela, badakizu, Photoshopa erabili.

VIRGO

Udako berotik neguko hotzera pasatu gara eta zure gorputzak ederki igarri du. Edozein makaltasun momentutan gaixotu egin zaitezke.

LIBRA

Gauzaren bat ez baduzu ulertzen, zergatik ez duzu galdetzen? Badakizu esaten dena: hobe behin tontoa bezala gelditzea bizitza osoan baino.

SCORPIUS

Seguru zaude eta igartzen da. Segurtasun horrek gauza hobeak lortzen lagunduko dizu eta baita besteak konbenzitzen ere.

SAGITTARIUS

Azken aldian gertatutakoa asimilatzea zaila da, baina zuk denbora gutxian lortuko duzu, izan ere, zorionezko egunak datozkizu.

CAPRICORNIUS

Gauza berriak probatzen saiatu, izan ere, probatu ezean ez duzu jakingo horiek nahiago dituzun ala ez. Gainera, aukera beti izango da zurea.

AQUARIUS

Oroitzapen onak etorriko zaizkizu burura datozen egunetan, iragan zoriontsuaren irudi. Ea etorkizuna kolore horrekin marraztu dezakezun.

PISCIS

Gauzak zure gustura egin behar dituzu, ez besteenera. Egindakoarekin konforme geratu ezean, alferrik da: ez zara eroso sentituko.

Barixakua 23**LIBURU AZOKA**

11.00etatik aurrera.- Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

KONTZERTUA

20.30.- Miguel Salvador Project. Coliseoan.

Zapatua 24**LIBURU AZOKA**

11.00etatik aurrera.- Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

BASERRITAR GAZTEEN MARTXA

12.00.- 'Baserrria da etorkizuna' manifestazioa. Untzaga plazatik hasita.
16.30.- Kalejira Ermuan.
19.30.- Pelikula emanaldia eta tertulia: 'Txorixak galduta egozarian' (Mallabian).

KONTZERTUA

22.00.- Sostoa abesbatzaren 25. urteurren kontzertua: Ainhoa Arteta sopranoa eta Rubén Fernández pianojolea. San Andres elizan.

KONTZERTUA

22.00.- Bill Lyerly Blues Band. Liburutegiko atarian (Soraluzen).

Domeka 25**BASERRITAR GAZTEEN MARTXA**

10.00.- Baserritar gazteen azoka.

14.00.- Herri bazkaria. Andra Mari elizako arkupeetan (Durangon).

LIBURU AZOKA

11.00etatik aurrera.- Eibarko Liburu eta Diska Azoka. Untzagan.

KONTZERTUA

12.30.- Cielito Musika bandaren kontzertua. Coliseoan.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- 'La montaña embrujada'. Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

KONTZERTUA

19.00.- Organiks. Zabel kultur etxean (Mutrikun).

Astlehena 26**XVII. MUSIKALDIA**

20.00.- Ondrásek Czek umeen abesbatza (Txekiar Errepublikan). Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

Martitzena 27**IKASTEN**

10.00.- Telebista eta zinema lengoia, Victor Iriarterekin. EPAn (Isasi, 39).

Eguena 29**IKASTEN**

10.00.- Artearen historia: Berpizkundea, Cristina Ayusorekin. EPAn (Isasi, 39).

EGO IBAR ZINEKLUBA

17.30 eta 21.00.- 'Il Divo' (Zuz: Paolo Sorrentino). Sarrera: Euro 2. Hezkuntza Esparruan.

HITZALDIA


19.00.- 'Juan Negrín: el último presidente de la república española'. Hizlaria: Carmen Negrín. Portalean.

BIODANTZA

19.00.- Biodantza saio irekia (sarrera 10 euro). Arrateko Andra Mari ikastetxeko gimnasioan.

XVII. MUSIKALDIA

20.00.- Peiyang abesbatza (Txina). Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

**ORDU ALDAKETA**

Zapatutik domekarako goizaldeko 03.00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02.00etaraino. Beraz, ofizialki ordubete gehiago izango du asteburu honetako domekak. Neguko ordutegi honek martxoaren 28ra arte iraungo du; egun horretan udakoa jarriko da berriro indarrean.

**JAZZ:**

Miguel Salvador Project. Urriak 23, 20.30.

MUSIKA:

Ondrásek Czek Children Choir. Urriak 26, 20.30.

Peiyang Chorus. Urriak 29, 20.30.

Coro Infantil San Cugat. Urriak 30, 20.30.

Mixed Chamber Choir Krog. Azaroak 1, 20.30.

diru-laguntzak**UMEAK ESKOLARA 2009.**

Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994-I-1etik 2003-XII-31ra bitartean jaiotako umeak. Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.

Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984-I-1etik 1993-XII-31ra bitartean jaiotakoak). Gehien jota 60'10 euro. Abenduaren 1era arte. Pegoran.

2024/10/23 OSTEGIA	2024/10/24 LAGUNA	2024/10/25 BIZKAI	2024/10/26 OSTEGIA	2024/10/27 LAGUNA

erakusketak

- Urriaren 25era arte
SOSTOA ABESBATZAren XXV. urteurrena.
Portalean.
- Urriaren 30era arte
EL EIBAR Y SU AFICION argazki erakusketa.
Untzaga Jubilatuen Etxean.
- Urriaren 31ra arte
ANGEL BOLUNBURUren argazki erakusketa.
Klub Deportiboan.
JOSE ANTONIO GONZALO HERNANDEZen argazki erakusketa. Portalea tabernan.
MIKEL OROZKOren argazki erakusketa.
El Ambigú tabernan.
- Azaroaren 1era arte
TRUCOren argazki erakusketa. Topalekuan.
JOSE LUIS MARTINEZen argazki erakusketa.
Debako Turismo Bulegoan.

ikastaroak

- **Esperientzia Eskola.**
Izen-ematea eta informazioa: Urriaren 23ra arte, nagusiak@debegesa.com helbidera idatzita edo 943820110 telefonora deituta.
- **UEUko Udazkeneko ikastaroak.**
Izen-ematea eta informazioa: www.ueu.org helbidean edo 943821426 telefono zenbakian.
- **Berbetan.**
Izen-ematea eta informazioa: ...eta kittol! Elkartearen (Urkizu, 11) edo 943200918 telefono zenbakian.
- **Itsas-patroi ikastaroa.**
Armeria Eskolan. Izen-ematea eta informazioa: Eguzki Jaia itsas akademia (www.eguzkijaia.com) edo 616175672 telefono zenbakian.
- **Reiki ikastaroa (1. maila).**
Noiz: Urriaren 31n eta azaroaren 1ean. Izen-ematea eta informazioa: 665743217 telefono zenbakian.
- **Berdintasun harremanak.**
Non eta noiz: Azaroaren 2tik abenduaren 21era, astelehenetan, 18.00etatik 20.00etara, Andretxean.
Izen-ematea: Urriaren 23ra arte. Pegoran.

farmaziak

- 23, barixakua
EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
- 24, zapatua
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- 25, domeka
EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 26, astelehena
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- 27, martitzena
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- 28, eguaztana
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- 29, eguena
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- 30, barixakua
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

lehiaketak

- **San Andres bertso-paper lehiaketa.**
Lanak aurkezteko epea: Azaroak 6ra arte. Informazioa: ...eta kittol-n (Urkizu, 11 - solairuartea), 943200918.
- **Makrolehiaketa Errota Gaztelekuan**
Lanak aurkezteko epea: Urriak 25era arte. Txapelketa urriaren 30ean hasiko da, Gaztelekuan.

telefono jakingarriak

- SOS deiak112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola901 20 20 20
- Naturgas902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.943 46 46 22
- Gurutze Gorria..943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekoa.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren902 54 32 10
- Pesa902 10 12 10
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

- EIBAR-DONOSTIA.** Eguneroko: 07.30, 08.50, 10.30, 13.50, 14.50 eta 18.50. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.50, 18.50 eta 20.50. **DONOSTIA-EIBAR.** Eguneroko: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.50, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduko. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduko. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduko. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara orduko. **EIBAR-GASTEIZ.** Eguneroko: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Eguneroko: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.50. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.50 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiko). Zapatua-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era orduko. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiko. Zapatua-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era orduko.

tren ordutegiak

- EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.13etatik 21.13etara orduko. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara orduko. + 09.34 eta 20.54. **EIBAR-DURANGO.** Eguneroko: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etatik 20.15etara orduko. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara orduko.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela, jangela, komuna eta ganbara. Teilatu eta fatxada berriak. 200.000 euro. Tel. 627-635247.
- Amañako W. Orbean pisua salgai. 3 logela, sukalde-jangela eta komuna. Balkoi bi. Eguzkitsua. 28.500.000 pta. Tel. 943-120254.

1.2. Errentan

- Logela alokagai Eibarren. Tel. 669-175981.
- Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 690-980846.
- Pisua alokagai Bidebarrieta, 28an. 2 logela. Kanpora begira. Tel. 652-764566. Begoña.
- Osakidetzako langileak Eibarren logela hartuko luke alokairuan. Tel. 692-114352. Karmele.
- Bikote arduratsua Donostian pisua hartuko luke alokairuan. Tel. 616-813097.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Janaridenda lagatzen da erabilerarako. Tel. 649-744187.
- Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Alokagai

- Lokala Eibarren alokagai. 180 m². Argitsua eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.
- Garaje marra alokagai Urkizun. Tel. 609-453946.
- Garaje itxia alokagai Arrate Bide, 17an. 80 euro hilean. Tel. 679-310083 edo 943-701631. Alejandro.
- Asua-Errekan garaje itxia alokagai. Apalekin. Prezio interesgarria. Tel. 630-391112.
- Urtzailen lokala alokagai (sotanoa). 66'80 m². Tel. 943-208555.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Interna edo externa. Tel. 675-421933 edo 666-771151. M^a Estela.
- Neska eskaintzen da arratsaldez umeak zaindu edo kamarera lanetarako. Tel. 697-939085.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 943-171583 edo 608-474923.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu, sukaldari-laguntzaile moduan eta abarretarako. Tel. 690-156040.
- Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu edo etxeko lanetarako. Esperientzia. Tel. 678-305927.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu edo etxeko edo pegorak garbitzeko. Tel. 663-786976.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 610-936839.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 638-938307.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 691-692964.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 655-384477.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edo etxeko lanetarako. Tel. 636-172765.
- Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu edo konponketa lanetarako. Tel. 680-674323.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaindu, sukaldari laguntzaile edo taborneretan lan egiteko. Tel. 608-401590.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-132117.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska euskalduna eskaintzen da garbiketa lanetarako. Tel. 687-114707.
- Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile edo garbitzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 645-461600.
- Mutil euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 636-252957.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Esperientzia. Tel. 680-463892.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 616-397348.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 699-813826.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketa lanetarako edo kamarera moduan. Tel. 625-048037.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-223378.
- Haur Hezkuntzako ikasle euskaldunak umeak zainduko lituzke arratsalde. Esperientzia. Tel. 626-752117.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaindu, gaixoekin gaua pasatu (ospitalean edo etxean) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 664-174654.
- Mutila eskaintzen da, gidatzeko C karnetarekin (makinista, atzerakako hondetamaina eta pala). Esperientzia. Tel. 627-611243.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 608-897639. Shirley.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 617-844142.
- Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 699-221092.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko arratsaldez eta gaeuz. Tel. 671-972733.
- Gizona eskaintzen da garbiketa lanetarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 656-493864.

- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 626-018538.
- Emakume arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 608-474923 edo 943-171583.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 639-962219.

4.2. Langile bila

- Kamarera behar da egun osoz lan egiteko. Kontratuarekin. Tel. 653-019962.
- Elgoibarko Izarra elkarteak euskera teknikaria behar du. Tel. 943-741746. Amaia.
- Laguntzailea behar da Ermuko hortz-klinika baterako. 18.30etatik aurrera. Tel. 615-724810.
- ...eta kitto! astekariak banatzaileak behar ditu. Tel. 943-200918.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- Euskarazko klase partikularrak ematen ditut, EGA eta perflak prestatzeko. Tel. 620-608065.
- Neska euskaldunak klase partikularrak emango lituzke. Tel. 617-844142.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Umeendako kotxe-silla eta maxi-coxia salgai. Arrue markakoa. Urdina. Egoera onean. Tel. 616-327019.

6.3. Galdu/Aurkitu

- Irailaren 26an (zapatua) botoidun jertse beltza galdu nuen Bidebarrietan, San Andres eskolaren parean. Tel. 687-472084. Ane.

Irailetik aurrera 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

**ZEZEN
BIDE**



**AUTO
ESKOLA**




ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

GIDA-BAIMENAK



San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR



PINTURA
oleoa / akrilikoa

MAITE ARRIAGA
IRAKASLEAREN
URTE OSOKO
TAILERRAK

giza irudiaren
DIBUJOA
modelo
biziarekin



Informazioa:
622053933 / 943 821353
maitearriaga@terra.es

ALFA

www.alfahogar.com

